

Agur Jose Inazio

ARGIA aldizkariaren orriotan argitaratutako artikulu guztiak irakurri eta estimatzen zenizkidan, eta orriotatik bidali nahi dizkizut esker on hitzak. Kultur sistemaren bazterreko eremuetan, maiz gutxietsiak diren horietan, kulturaren sustapenean eta antolaketan nabarmendu zara, eta euskal kulturari egin diozun ekarpen oparoa azpimarratu eta eskertu nahi nuke agur hitz hauen bidez.

Zure txistuaren lehen notak entzun orduko bularra atera eta hamar zentimetro egiten genituen gora dantzariok; hazita ateratzen ginen dantzara. Txistua indartsu, distiratsu jotzen zenuen, eta modu berean dantzatzera bultzatzen gintuzun. Bizi-bizi sentzilloetan, notak luzatuz jira osoko lasterketan eta pazientziatziaz kabrioletatik zangoak lurreratzeko zain; musika dantzaren zerbitzura jartzen zenuen, guretik onena emateko bidea irekitzen zenigun dantzariok; danbolinarekin laguntzen gintuzun une zailetan eta txistuari txinpartak ateratzen zenizkion dantzarien pasarte traketsetan.

Ogibidez diru-kudeaketan aritzen zinen, eta hara, zehaztasun bera aplikatu zenuen dantzaren antolaketan. Harrituta ikusi zintugun enpresa kudeaketa-modu berritzaileak dantzaren,



Oier Araolaza

DANTZARIA

@oaraolaza

Ez dut sekula profesionalik ezagutu zuk erakutsitako perfekzio nahiarekin eta ahalarekin lan egiten duenik

musikaren eta kulturaren antolaketan erabiltzen. Futbol jokalaria entzutetsuen pareko baliabideak, mimoak eta atentzioak eskaintzen zenizkigun dantzariok bereziki, eta kulturagileei oro har. Profesionalen eta amateurren arteko bereizkeria maltzurak egiten diren bakoitzean akordatzeko naiz zurekin Jose Inazio. Ez dut sekula profesionalik ezagutu zuk erakutsitako perfekzio

nahiarekin eta ahalarekin lan egiten duenik. Edozein eremutan sartuta ere, ondo ez, bikainetik gora zen gauzak egiteko ezagutzeko zenuen modu bakarra.

Borborka jariatzen zenuen konfiantza eta babesarekin, dantzari eta txistulari belaunaldi oso bat goi mailara eramane zenuen. Aitzindari eta ausarta zinen, eta musika eta dantza tresna xumeak estu baliatuz gure emariaz harro sentiarazi eta anbiziokoak izaten lagundu gintuzun. Zure lan-diziplinak, eskuzabaltasunak eta neurri gabeko atentzioak hunkituta, bizitza-ibilbidea bera dantzaren eta musikaren mundura lotu izana zor dizugu zenbaitek. Dantza, denbora-pasa gozagarria izateaz gain, euskal kulturaren adierazpen garrantzitsua dela sinestarazi zenigun, eta agerraldi xumeana ere, gure kulturaren ordezkari izatearen ardurarekin eta duintasun gorenarekin betetzen erakutsi zenigun. Agur Jose Inazio, agur. Agur eta ohore.

* Jose Inazio Sarasua Garate, Elgoibarko txistulari bandaren eta Haritz euskal dantzari taldearen zuzendaria, musika, dantza, euskal kulturaren eta kirolaren hainbat talde, elkarte eta ekitaldiren zuzendari eta antolatzaile aparta, pasa den apirilaren 11n zendu da 60 urterekin. ■

Bilbon euskaraz

www.bilbaoeuskaraz.eus

XXIX. edizioa

2 0 1 7

Mij Rafael Koleta

GU ERE BERTSOTAN